## ERRETIRO PENTSIOAK

EAEko Justizia Administrazioan behintzat kontu hau pil-pilean dago, ez dago ukatzerik. Gogorarazi behar dugu 2015eko hauteskundeetan ere asanbladak eta informazio orriak egin zirela, pentsioak zirela-eta. Hauteskunde aldia heltzean, sindikatu bakoitzak abian jartzen du bere kanpaina ahalik eta bozka gehien jasotzeko asmoz eta baten bati otu bide zaio amu egokia dela.

Hala eta guztiz ere, LABek uste du sindikatu guztiok, nork bere posiziotik, erretiro duinerako apustua egin dugula. Ezin bestela izan, Justizia Administrazioko langile guztiok gaur egungo erretiro sistemaren menpekoak baikara, hortaz, kontu honek denoi eragiten digu.

Langile guztien onetan, pentsatzen dugu honela jokatzea dela egokiena: gaiaren inguruan eztabaidatu, proposamenak zehaztu eta argudioz hornitu eta, azkenik, erakunde sindikal ezberdinen artean adosteko moduko puntuak bilatu. Hori lortuta proposamenak bai langileei, bai negoziazio mahaiari aurkeztea besterik ez litzateke falta. Nabaria da Justizia Sailak orain arte ez duela ezer egin nahi izan. Areago, gure lan-baldintzak hobetzearekin zerikusia duen orori ezetz esaten diote. Bada, biotako bat: gure jarrera indartzeko sindikatuok batzea lortzen dugu –hala ere, ez da izango bide samurra-; ala, bestela, gauden moduan geratzea daukagu.

Zantzu guztien arabera, ezein sindikatuk ez du erretiroen inguruko biderik urratu estatu mailan, osterantzean Madril, Andaluzia, Balearrak… izango genituzke hizpide une honetan. Agerikoa da, gehienbat, Eusko Jaurlaritzarekin 2010ean sinatu genuen IV. Hitzarmena ari garela erabiltzen, horixe baita

## PENSIONES DE JUBILACIÓN

Una cosa es cierta: el tema se mueve, en la Administración de Justicia de la CAV al menos. Cabe recordar que en las elecciones de 2015 también se hicieron asambleas y hojas informativas a este respecto. Cuando llega el periodo electoral cada sindicato pone en marcha su campaña dirigida a recabar el máximo número de votos y alguno ha debido pensar que éste es un buen gancho.

No obstante, desde LAB pensamos que todos los sindicatos, cada uno desde sus posiciones, han ido haciendo su apuesta por una jubilación digna. Y es que no puede ser de otra manera, ya que todo el personal de la Administración de Justicia dependemos del sistema actual de jubilaciones; es decir, que esto nos incumbe a todos y a todas.

Creemos que lo importante para el colectivo es que este tema se debata, que las propuestas se concreten y argumenten y que se busquen puntos de acuerdo entre las distintas formaciones sindicales con el fin de presentar propuestas conjuntas, tanto al colectivo como a la mesa de negociación. Está claro que el Departamento de Justicia, hasta la fecha, no ha querido hacer nada. Es más, se niegan en rotundo a todo lo que tenga que ver con una mejora de nuestras condiciones de trabajo. Por consiguiente, o logramos unirnos para reforzar la posición sindical ante la administración –y aun así el camino va a ser duro-; o sino la alternativa es quedarnos como estamos.

No parece que ningún sindicato esté apostando por la vía a nivel estatal, sino estaríamos hablando de lo que se está haciendo en Madrid, en Andalucía, en Baleares... Por lo que vemos, mayoritariamente nos estamos basando en el IV Acuerdo suscrito con el Gobierno Vasco en 2010 que es el instrumento del que nos

erkidego honetan, bestek beste, pentsioei irtenbidea bilatzeko daukagun tresna. Izan ere, aipatutako hitzarmen horrek honela dio:

*42. artikulua.– Erretiroa.*

*Administrazio sinatzaileak erretiro-mota batzuen eta besteen arteko konparazio-azterlan bat egingo du, klase pasiboen menpe daudenak eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren menpe daudenak aztertu, eta denak ere Euskal Autonomia Erkidegoko justizia-administrazioko baldintzarik onenetan berdintzearren.*

Hala ere, Justizia Saila ez da oraindik azterlanetik harantzago joan.

Egoki deritzogu hauteskundeek erretiro-pentsioen eztabaida berriz pizteari. Baina, kontzientzia hartzeko garaia delakoan gaude: sindikatuok ez gaitezke joan negoziazio mahaira nor bere planteamenduekin; aldiz, langileak gure proposamen bateratu eta sendoa babesten dutela askoz ere indartsuago agertuko gara negoziariora.

Horiek horrela, LABek nahi duena da eztabaida aldi bati ekitea non elkarte sindikalak behartuta egongo baikinateke gai komun batzuk adostera. Esan gabe doa hori hauteskunde sindikalen ostean gauzatu beharko dugula. Era berean, esku artean dugun kontua hain garrantzitsua izanik, saihestu behar dugu pentsioen inguruko eztabaida emaitzak erdiesteko gailu huts bihurtzea, hauteskunde prozesua zapuztea baino ez baita lortzen, horrela.

2019/05/09

dotamos en esta comunidad para llegar, entre otras cuestiones, a una solución sobre pensiones. Dicho acuerdo recoge lo siguiente:

*“Artículo 42.– Jubilaciones.*

*La Administración firmante elaborará un estudio comparativo sobre jubilaciones con el fin de equiparar las diferencias a las mejores condiciones que puedan existir en la Administración de Justicia de Euskadi entre quienes están sujetos a clases pasivas y quienes lo están al régimen general de la Seguridad Social”.*

Sin embargo, todavía hoy, el Departamento de Justicia no ha cumplido más que la parte del estudio.

Nos parece bien que las elecciones hayan abierto nuevamente el debate sobre las pensiones. Pero va siendo hora de tomar conciencia de que los sindicatos no podemos ir a la mesa de negociación cada uno con sus planteamientos y sin la fuerza que nos debería dar el hecho de tener a los trabajadores y trabajadoras apoyando una propuesta unitaria y firme.

Por ello, LAB es partidaria de iniciar un proceso de debate que nos obligue a las centrales sindicales a buscar puntos en común. Es obvio que esto tiene que darse tras las elecciones sindicales y que tenemos que olvidarnos de convertir un tema con tanta repercusión, como es el de las pensiones de jubilación, en un mero objeto arrojadizo para obtener réditos, ya que lo único que se consigue es enrarecer el proceso electoral.

09/05/2019